

Noaia!!!

www.noaia.com



Herri kontsulta,
giza mugimenduen iritzia



Larunbat honetan,
"SoOofing" antzezlanana
ikusteko azken aukera

hamaikabat



BIRZIKLATU 5 EDUKIONTZIEKIN
ATEZ ATEKORIK GABE



Ez geratu etxean
eman botua

INFORMAZIO GEHIAGO: www.h1usurbil.net

h1usurbil@h1usurbil.net



618 249 131

Albisteak iruditan !!

Inauteriak, urteko jairik eroena

Bakeroak, sorginak, futbolariak, mimoak... edota irudiko indiarrek Kaxkoko kaleak hartu zituzten joan den otsailaren 12an. Udarregi ikastolako irakasle eta ikasleen kalejirarekin ailegatu baitziren inauteriak Usurbila. Eta kaletik, egun batez zirko erraldoian bihurtu zen Oiarde Kiroldegira lekuz aldatu zen festa giroa. Bertan, tradizionala den ikuskizuna eskaini zuten Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek. Mailaz maila, mozorro klasikoak dantza erakustaldi berritzaileenekin nahastu ziren, eskubaloiko pistan. Artean, harmailak gurasoz beteta zeuden, argazki edota bideo kamera eskutan une onenak jasotzen.



OSTIRALEAN KALEJIRAN IBILI ZIREN UDARREGIKO IKASLEAK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Hiegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

GIZA MUGIMENDUEN IRITZIA _____ **14. OR.**

HERRI GALDEKETAREN PROZEDURA _____ **18. OR.**

LARUNBATEAN, KANTU-JIRA _____ **21. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

BENTA TABERNA

**Oilasko erreak
Ogitartekoak**

San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

URDAINTZI

eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

LATAILLADE ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztizko 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021



ARITZ GORRITI

Entzutea da sekretua

Parranda betean, entzun izan diot lagun bati ligatzeko taktika irakasten ondoan duen koardilako beste kide bati. Beste munduko ezer ez omen da behar. Sekretua, bakarra da bere esanetan; Joxe Ripiauren abestiari omen eginez, norberak aurrean duena entzutea. Entzutea baita sekretua.

Entzutea baita bi pertsonen arteko hartu emanetarako oinarritzeko pausoa. Entzutea erantzuteko, jasotzea emateko, hartzea bueltatzeko... Baina betikoan gaude, beste kontu bat da entzumen nola erabiltzen dugun, zertarako. Bakarrizketan aritu eta aurrekoa trikimailuekin geureganatzen ahalegindu gaitezke, edota argiak izan eta ezkutuko interesik gabeko diskurtso batekin probatu. Aukera bat edo bestea, norbere esku dago beti.

Entzumen ordea askotan ez da Euskal Herrian sarri erabili izan ohi den zentzumena. Adibideak, mila ditugu. Pentsa, Gipuzkoako gotzain izendatu berria fededunak entzuteko prest zetorrela zioen. Baina berak iragarri bezala, kritikiko ageri zen talde jendetsua entzun izan balu benetan kargua hartu behar al luke? Edota beste adibide bat; gehiengo artifizial bati zuzendutako politikarik egin al dezake, herritar oren ahotsa entzute

ten ez duen gobernuak? Hauteskundeak lau urtean behin izaten dira bai, baina nahikoak al dira herritarren nahiak, ezinegonak, zalantzak, kezak, proposamenak, galderak, beharrak... entzuteko?

Askotan ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez dagoela esan izan ohi da. Eta entzun nahi ez duen gor handiagorik ere ez omen dago. Eta ondo doakie bide horretan batzuei, noiz arte ordea? Entzungorrena egi-teak, gezurrenak bezala bide luze edo motza ote du?

Gurean behintzat, datorren asteburuan aparteko hitzordua dugu, denon arazo bilakatu den gai baten inguruan bozkatzeko aukera izango da. Otsailaren 28ko iluntzerako zortzietan, herritarren ahotsa ontziotan bilduta geratuko da. Entzun dezagun ba zer dioten herritarrek, entzutean baitago sekretua, galdera ikur askoren erantzunak, herritarren borondatea, nahia, iritzia... Hitz egin dezatela beraz herritarrek, eta haiek adierazitakoa, entzun dezagula denok gero. Entzun. Joxe Ripiau eta taldekideek argi zioten abesti batean, lehen, orain eta gero, nola jokatu gutako bakoitzak aurrean dugun lagun, talde edota herritarrekin; "entzutea da sekretua, beti ipuin berdina ez kontatu. Entzutea da sekretua, beti istorio bera ez kontatu".

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Ugaitz Agirre - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Igandean, puntako bertso saioa

Punta-puntako lau bertsolari gonbidatu dituzte igande honetarako, Bota Punttubak eta Udalak antolatutako ekitaldian, Sutegiko oholtza gainera.

Bertsozaleek hitzordua dute igande honetan, ez telebista aurrean, bertatik bertara baizik, Sutegiko auditorioan. Egungo bertsolaritza lau aurpegi aski ezagun, Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Amets Arzallus kultur etxean arituko dira, igande honetan, otsailak 21. Saioa, arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Gai jartzailen antzerki arituko da Inaxio Usarralde. Sarrerak aldeztu aurretik eros litezke, Oiarde kiroldegian edota Txiriboga tabernan, 5 euroren truke. Bestela, emanaldi egunean 8 eurotan.

Zubietako eskola, "desagertzeko arriskuan"

Gasteizko Legebiltzarrean Zubietako eskola txikiaren etorkizuna eztabaidagai izan da aste honetan. Zubietako eskolako gurasoen iritziz, hitzordu garrantzitsua, "gure eskola txikia desagertzeko arriskuan jarri baitu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak". Asteazken honetan, Gasteiz aldera joatekoak ziren Itziar zein Larraulgo gurasoekin batera.



Inauteriak Aginagako Herri Eskolan

Aginagako LH1 hezkuntzakoetako eskerrak eman nahi dizkiete gurasoek, "oso festa polita antolatuta duzue eta primeran pasa dugu zuen moztar festan. Hasiara batean festa batera ikusle gisa gonbidatu gaituzue eta azkenean ikuskizunaren partaide moduan bukatu dugu. Eskertzekoa da antolaketan egin duten lana. Mila esker".



Oiardo Kiroldegiko ekipamenduak handitu egingo dira

Oiardo Kiroldegiko kirol ekipamendua handitzeko Arau Subsidiarioetan aldaketa txertatzea onartu zuen hasieraz udalbatzak, otsailaren 11n burutu zen ezohiko osoko bilkuran. Udal ordezkari guztiak proposamenaren alde bozkatu zuten, Alkarbide udal taldeak izan ezik, abstentziora jo baitzuen. Orain alegazioak aurkezteko epea dator. Espedientea jendaurrean ikusgai egongo da hogeitanez.

2009ko maileguaren kontratazioa onartu da

Hainbat inbertsio finantzatzeko 1.200.000 euroko mailegua kontratatzea onartu zuen udalbatzak, otsailaren 11ko ezohiko osoko bilkuran. Abstentziora jo zuen Aralarrek. Alkarbidek eta EAJ-PNV-k aurka bozkatu zuten. Ezker abertzaleak eta PSE-EE-k proposamenaren alde bozkatu zuten.



PASA DEN OSTEGUNEAN EZ-DHIKO BILKURA EGIN ZUTEN.

Portamusuberako Plan Berezia

Behin betirako onartu da Portamusubera lur eremuko Hiri-Antolamenduko Plan Berezia. Ezker abertzaleak, EAJ-PNV-k eta PSE-EE-k alde bozkatu zuten. Aralar abstentitu zen eta Alkarbide udal taldeak aurka bozkatu zuten.

Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundira igorri eta erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Euskaltegian matrikulatzeko garaia

Buruntaldeko udalek, eskualdeko euskaltegi guztiak batera, herritarrei gogorazi nahi diete aukera paregabea dutela eskualdeko edozein euskaltegian matrikulatzeko.

Zehazkiago, otsailaren zehar, matrikula irekita dago Usurbilgo AEK euskaltegian.

Orduetegiaren aukera oso zabala da, eta ikasmailena ere bai. Euskaltegi bakoitzaren eskaintzaren berri web honetan euskara.buruntzaldea.org ikus daiteke.

Euskara ikasten dihardutenentzat aukeran dauden diru-laguntzak ere bertan kontsulta daitezke.



Atez ateko bilketa, asteburuetan, ordu erdiz atzeratuko da

Otsaila hasieratik Usurbilgo industria guneeetan ere, hondakinak atez ate biltzen hasi dira. Modu honetan, iazko martxoaren 16tik abian den bilketa sistema udalerriko beste esparru batera hedatu da. Bestalde, Udaletik ohartarazi dutenez, herritarrek egindako eskaerak aintzatzat hartuta, asteburuetak bilketa aurrerantzean ordu erdiz atzeratuko da. Larunbat eta igandetako bilketa

lanak beraz, goizeko bederatzietan hasiko dira.

Maiatzaren 9an hasiko da atez ateko bilketa Hernanin


Hernaniko udaleko alkate Marian Beitialarrangoitiak otsailaren 12an prentsaurrekoan iragarri zuenez, maiatzaren 9an ekingo diote atez ateko bilketeri Hernanin.

Atez ateko bilketaren proposamenak

zortzi hilabeteko ibilbidea osatu du Hernanin, iazko uztailean osoko bilkurak aipatu sistemaren alde egitea erabaki zuenetik. Prestaketa lanek aurrera jarraitzen dute. Datozen asteotan banatuko dira ontzi marroiak.

Bestalde, jada Hernaniko 300 familia etxean konpostajea egiten ari dira. Ahalegin hau egiten ari diren herritarrei, Udalak %40ko hobaria aplikatuko die.

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL


ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
TIF 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Oñandegin - Gozotegia
LABE-GOXO

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Inauteriak Euskal Herrian



Zer moduz igaro dira ihauteriak? ZEuskal Herrian betidanik tradizio handia egon da ihauterien inguruan eta gure inguruan ezagunenak Tolosakoak dira, izan ere, izugarritzko festa egoten baita bertan, ostegunetik hasi eta astearterarte.

Baina badira beste toki batzuk ere ihauteriak ospatzen dituztenak, Altsasu, Arizkun, Donibane-Zubieta, Lantz, Ziburu etb. esate baterako. Ihauteri hauek esan beharra dago aintzinan kristautasunarekin lotuak zeudela, eta guk ere jakin badakigu ihauteri eta Aste Santuen inguruan erlazio bat badagoela.

Hala ere hauen artean aipagarrienak eta ezagunenak Lantzeko ihauteriak dira. Orain dela gutxi arte kanpotarrek ez zituzten gehiegi ezagutzen baina urteen poderioz oso ezagunak egin dira eta bertako pertsonaiak hauek dira: Miel-Otxin, Ziripot, Txatxoak, Zaldiko eta Perretzaileak.

Pertsonaia bakoitzak ere bere papera betetzen du. Adibidez, Miel- Otxin Panpina erraldoi ikusgarri bat da. Igandean gazteek osatzen dute ostatuaren biltegian. Panpina lastoz beteta dago. Herriko gazte batek gaiten



musikaren erritmoak lagunduta antzezpenak irauten duen denbora guztian eraman eta dantzatzen duelarik.

Beste bat aipatzekotan Ziripot lastoz betetako zakuak daraman gazte bat da. Honekin lodi eta komiko itxura hori eman nahi diotelarik. Hala ere, kolpeetatik babesteko ere bada. Makil luze bat erabiltzen du ibiltzeko. Aurpegia estalirik darama eta emakume itxura ematen dion txapela ere eramaten du batzutan.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Hilabete pasa da



Jada hilabete inguru pasa da Haitiko lurrikarara izan zenetik. Ezbehar handia dudarik gabe Haitiko bezalako herri batentzat. Nor da ezbeharren erantzule? Ohituak gaude pertsona bati, gobernuari, hiltzaile, lapur... errua egozten. 7.3 gradutako lurrikararen ostean ez garaela ezer, hutsa garaela ikasi dut; bai behintzat naturako indarren aurrean.

Gizakiak menderatu edo kontrolatu ezin dezakeen gauza gutxietarikoa dugu eta!

Haitiko 7.3 gradutako lurrikararen ostean gauza materialek ez dutela garrantzirik ikasi dut, eskaintzen duten zorientasuna azalekoa da eta "milisegundu" bakar batean gal liteke.

Haitiko 7.3 gradutako lurrikararen ostean ezbehar batek gehiengoan onena azaleratzen duela ikasi dut; tragediek elkartu egiten baikaituzte.

Azkenik, Haitiko 7.3 gradutako lurrikararen ostean gauzen edo egoeren alderdi negatiboan pentsatu beharrean, hobe dela positiboan pentsatu ikasi dut; besteei errua bota eta gure erantzukizunak saihestu beharrean hobe da gauzei aurre egitea.

Hala ere gauza bat argi dut: erraza da gauzak ikastea baina benetako erronka, ikasitako hori praktikan jartzea da.

ATXEGALDE

ARITZ GORRITI

Atxegalden ostiral mehe

Inauteriak pasa berri ditugu eta IUsurbilen esan dezakegu gure auzoan hasten direla ostiral mehe egunean. Ikastolatik pasatako guztiok dugu Inauterietan egiten genuen festa gogoan. Batez ere Ikastolako azken urteetan egiten genuen festak ditut gogoan nik.



Arratsaldean dantzaldia izaten genuen eta oroitzapen ederrak etortzen dira pentsatzen jartzen naizenean.

Aurten ere festa bikaina antolatu dute goizean goizetik. Lehenbizi kalejiran ikusi ditugu herrian zehar eta ondoren Kiroldegian izan dute festa. Denak moztortuta eta bakoitza bere gelakideekin azken asteetan prestatzen aritutako dantzak eta koreografiak egiten.

Gurasorik ere ez zen falta eta hauek ere txoratzen umeen festari begira. Gaur egun, ehundaka argazki kamera eta bideo kamera ikusten dira argazki eta bideoak grabatzen. Hauek izango dute irudirik beraien festa gogoratzeko bai egun hauetan baita urteak pasatzean.

AGINAGA

AITOR HELETA

Aginagatik Aginagarrei



2009ko martxoaren 14a egun handia izan zen usurbildar ororentzat: haur, gazte zein helduontzat. Atez ateko hondakinen bilketari ongi etorri jaian izan ginelako guztiok.

Etxeko txikienek Pirritx eta Porrotxen irri eta muxuak jaso zituzten, etxeko helduenok berriz txorizo eta sagardoz gozatu genuen. Orduan zerbait berria zetorrela eta irrikaz geunden, hasteko irrikaz, aurrez hainbat bilera saioetan atez atekoa nolakoa izango zen ikasteko aukera izan baikenuen, baina noski ezezagunak beti dakar jakinmina eta ikusmira.

Iritsi zen martxoaren 16a, egun handia, aldaketa, hondakinen iraultza!!! Zaborrik gabeko Euskal Herria eraikitzeko bideko lehen harria jarri genuen usurbildarrok. Sekula ahaztuko ez dudan eguna, eta gure etxeko txikienek egun historikotzat jasoko dutena.

11 hilabete igaro dira ordutik, emaitza ezin hobekak lortu ditugu guztion artean; herritarrok poza ez ezik harrotasun sentipena gainezka dugu. Poztasun eta harrotasun uholdeak aurrera jarrai dezan Aginagako gure txokotik aginagar guztiak, hilaren 27 eta 28an atez atekoaren alde bozkatzera



animatu nahi ditut.

Egun horietan ez dago jokoan zabor bilketaren eredu bakarririk, baizik eta gure seme alabei utziko diegun bizitza eredu.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Inauteri giro aparta



Urtea hasi bezain pronto parrandarako prestatzen gara zertara bestela. Giro ederra egon zen larunbatean herrian zehar. Urtero herriko hainbat koadrilak ukitu berezia ematen diote eta hori eskertzekoa da benetan. Usurbilen ez du tradizio handirik Inauteriak baina ondo pasatzeko eta umorea kaleratzeko gogoa nahiko da.

Eguna kolorez jantziz, jende ugari aurtengo gaiari jarraiki Zirkoaren inguruan jantzi ziren eta beste asko libreki baino elegante elegante noski. Barre ederrak egiteko aukera izan genuen beste behin ere eta hori poztekoa da gaur egun. Behar beharrezkoa dugu barre egitea eta naturaltasunez bada, askoz hobekoa.

Bai goiz partean Zumartxan txarangarekin eta arratsaldean Ordiziako Burrunbazaleekin tigre, lehoi, laban jaurtiztaileak, palomita saltzaileak, erromatarren koadrilak, ijitokak, sahararrak, pailazoak eta beste moztar asko ikusteko aukera izan genuen.

Eskerrik asko beraz herritar guztiei poz pozik herriko ihauterietan parte izateagatik. Urte askoan jarrai dezagula honelako giroan murgiltzen zeren, horretarako ez dago adinik, hori garbi geratu zen beste behin ere.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Ni, Atez Atekoa

Ni ez naiz kaikua, nik badakit Atez Ateko bilketarik gabe erraustegia gainean dugula eta nik ez dut erraustegirik nahi, ezta behar ere, ez hemen eta ez inon.

Ni ez naiz kaikua, nik badakit Atez Ateko bilketarekin lortzen direla birziklatze tasa handienak, bai Japonian, bai Sidneyen, bai Italian, bai Katalunian eta bai Usurbilen, herri txiki zein hiri handietan.

Ni ez naiz kaikua, nik badakit Usurbilen %82 birziklatze-ira iritsi badira, hori Atez Ateko bilketari esker izan dela, baita usurbildarren lan onari esker ere. Eta horregatik daude kanpotarrak Usurbila begira, inbidia sanoz so, horregatik datoz Usurbila bisitan.

Ni ez naiz kaikua, nik badakit orain 5. edukiontzia alde ari diren horiek izan direla aurreko urteetan erraustegiaren bultzatzaile nagusi.

Ni ez naiz kaikua, nik badakit zuk, nik eta zubietar eta usurbildar guztiok kontsulta egunean botoa ematera baldin bagoaz eta Atez Atekoaren alde ematen badugu Zubieta, Usurbil eta Gipuzkoa garbiago eta osasuntsuagorako bidean pauso ikusgarria emango dugula.

Ni ez naiz kaikua, ni Atez Atekoa naiz, Zubietaren aldekoa, osasunaren aldekoa.



Talde eta elkarte askok atez atekoarekin bat egin dute

Pasa den igandean, Atez Ate Dudipe Bilguneok deituta, argazki bat ateratzeko bildu ziren herritar ugari. Asteburu honetarako ere, hainbat deialdi egin dituzte. Tartean, kanpainako ekitaldi nagusia, igande honetan lau gunetan zehar burutuko dutena.

Atez Ate Dudipe Bilgunean talde hauek daude ordezkaturak: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba, Zubieta Bizirik, Usurbil Bizirik, Atez Ateko Jarraipen Batzordea eta Errausketaren Aurkako Mugimendua.

Hauekin bat egin dute herriko talde eta elkarte askok. Hauxe da izena eman duten eragileen zerrenda: Aitzaga Elkartea, Aitzaga Kultur Taldea, Akerra Gaztetxea, Alkartasuna Baserritar Kooperatiba, Aralar, Atez Ateko Jarraipen Batzordea, Baxurde Txiki Triatloi Taldea, Bota Punttuba, Desegin Musika Taldea, Desperbicio Musika Taldea, Erle Lagunak, Ezker Abertzalea, Gorositxo Eztiola Elkartea, LAB, Lasarteko Institutuko Ikasleak, Nafartarrak, Puntapax Kanoe Ke, Senideak, Txerriki Antzerki Taldea, Udarregi Ikastola, Usurbil Bizirik, Usurbil FT Mutilak-Neskak, Usurbil KE, Zubieta Lantzen, Zubieta Pelota Elkartea, Zubietako Herri Batzarra, Zubietako Jai Batzordea.

Bilera irekia, ostiral honetan Artzabalen

Atez atekoaren aldeko eragileen Bilguneak bilera irekia deitu du ostiral honetarako. Kanpainaren jarraipena egingo da eta aurrera begirako lanak zehaztuko dira. Bilera Artzabalen izango da, lehen solairuan, ostiral honetan hilak 19 arratsaldeko 19:30ean.

Atez ateoaren alde lan egin nahi duen herritar orori luzaturiko deialdia da.

Herriko musika taldeen saioa

Aurreko astean hasi zen ofizialki herri kontsultaren inguruko kanpaina.



ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMAREN ALDE HERRIKO TALDE ETA ELKARTE ASKO AZALDU DIRA; BAITA HAINBAT ERAGILE ERE.

Aurretik dugun asteburua izango da kanpaina egiteko azkena. Atez Ate Dudipe Bilguneok bi ekitaldi nagusi antolatu dituzte.

Ostiralean, gaueko 23:30etik aurrera, kontzertua egingo da Askatasuna plazan. Honako talde hauek arituko dira: Desegin, Odolaren Mintzoa eta Desperbizio.

Ekitaldi nagusia, igandean

Igandean, ordea, ekitaldi handi bat prestatzeko ahaleginetan dabil Atez Ate Dudipe Bilgunea. Euren aukera lau haizetara zabaldu asmoz, gune ezberdinak baliatuko dituzte herrian barrena.

IGANDEAN, EKITALDI NAGUSIA

“Porrotx pailazoak
igandeko ekitaldi nagusian
hartuko du parte”

Haur, gazte eta helduei zuzendutako ekitaldiak lotzen dabilta egunotan Atez Ate Dudipe! Bilguneok. Tartean, mural pintaketa bat egingo da, gaztetxoentzako jolasak izango dira Haurren Txokoan eta Porrotx pailazoa bera izango da igande honetako ekitaldi nagusian.

Otsailak 19 ostirala kontzertua eta festa

Ostiral honetan, “Atez Ate Dudipe Kontzertua” lemapean, hainbat talde arituko dira Askatasuna plazan. 23:30ean hasiko den jaialdian honako talde hauek arituko dira: Desegin, Odolaren mintzoa, Desperbizio. Sarrera 2 euro, CDa barne.

Otsailak 21 igandea ekitaldi nagusia

Igande honetan, frontoian eta Dema plazan, Atez Ate Dudipe Bilguneak ekitaldi nagusia egingo du. Lau gune ezberdinetan banatuta egingo dira honako ekitaldiak:

10:30 Mural pintaketa.

11:00 Haurren txokoa.

11:30 Porrotxekin atea ireki eta itxi.

12:00 Abestiaren aurkezpena, bertsolariak, taloak...

13:00 Ekitaldi Nagusia.

Girotzeko trikitixa, alboka, Kantu Taldea...

Bai atez atekoari



- Errefusa asko gutxitzen delako
- Kontzientzia gehiago hartzen dugulako
- Gehiago birziklatzen delako
- Hondakin gehiago konpostatzen delako
- Ingurumena eguneroko kontua delako
- Osasuna errespetatzen duelako
- Erraz egiten ari garelako
- ...



www.aralar.net



“SoOofing” antzezlanana agurtzeko festa dotorea, larunbatean Sutegin

Badoa “SoOofing”, eta gero arte esango digute Leire Iturrioz, Jon Etxabe eta Ander Izeta aktore gazteek. Agurrik ez, ordea, maiatzean bueltan etorriko direlako obra eta talde izen berriarekin. Agur festa eta datorrenaren iragarpena, guztia, larunbat honetan, otsailak 20, 20:30etik aurrera Sutegiko auditorioan. Sarrera doan.

NOAUA! “SoOofing” oraindik ezagutzen ez duenarentzat, zeri buruzko antzezlanana da?

Jon Etxabe. Marik gaztetatik duen sofaren inguruan une asko bizi izan ditu; semearen jaiotza, semea hazten doa, ezkontzen da, seme-alabak izaten ditu... Mari zahartzean bukatzen da istorioa. Beste belaunaldi batek hartzen du sofa eta istorioak aurrera jarraitzen du.

N. Bukaera irekia du beraz?

Leire Iturrioz. Bilobak hartzen du sofa hori, lokalean jartzeko asmotan. Baina gero ez dakigu zer pasatzen den sofa horrekin.

Ander Izeta. Azken finean sofa baten bizitza da. Etxe batean dago, bota egiten da eta lokaletan bukatzen du. Gainera, nahiko gustukoa dugu sofa.

AGUR FESTA

“Lan berriarekin hasiera goazenez, kariñoa diogun antzezlanana agurtuko dugu”

N. “SoOofing” lanaren agurra izango da datorren larunbateko emanaldia?

A. I. Oso une onak eman dizkigu “Soofing”-ek. Lan berriarekin hasiera goazenez, kariñoa diogun antzezlanana agurtuko dugu. Ondo bukatu, lagundu digutenei eskertu eta lan hau alde batera uzteko. Gero arte esango diogu publi-



ANDER IZETA, LEIRE ITURRIOZ ETA JON ETXABEK DUELA URTEBETE ESTREINATU ZUTEN “SOOOFING” ANTZEZLANA AGURTU ETA MAIATZEAN ESTREINATUKO DUTEN LAN BERRIA IRAGARRIKO DUTE. GUZTIA, LARUNBAT HONETAN, SUTEGIKO AUDITORIOAN.

koari eta maiatzean berriz hemen egongo garela obra berriarekin.

L. I. Ezin genuen bestela bukatu, guretzat berezia izan da “SoOofing”. Esperientzia honi esker, hainbeste leku-tara joan gara, jendea ezagutu dugu, eta haiekin oso gustura egon gara.

N. Urtebete pasa da, hirukote moduan antzezten hasi zinetenetik. Zer moduzko esperientzia izan da?

A. I. Oso esperientzia ona izan da, antzerkia gustuko duen jendea ezagutu dugu. Oso gustura aritu gara. Harrituta nago, ez baitzen erraza gure antzezlanana mugitzea eta gainera gazteak izanda, gure herrian bakarrik gara ezagunak. Baina sei bat emanaldi eskaini ditugu. Ez genituen espero.

L. I. Beste lekuetara joan eta jendeak oso ondo hartu gaitu. Jendea entregatu egiten zen, berotasun hori transmititzen zuen eta hori oso garrantzitsua izan da guretzat.

J. E. Egitearen poderioz ikasi dugu diziplina nola mantendu, zerbait falta bazen inprobisatzen ikasi dugu.

Maiatzean lan berria jarriko dute martxan

Hurrengo lana prestatzen hasia da hirukote gaztea. Lan berriak “Hau komeria” izango du izenburu.

N. Otsailaren 20an, hurrengo lana iragarriko duzue?

J.E. Bide berri bat hartu dugu antzerki munduan. Gure kabuz saiatuko gara ia zerbait lortzen dugun. Horren adibide da maiatzean estreinatuko dugun lana.

A.I. Talde eta lan berriaren izenen berri emango dugu otsailaren 20ko emanaldian. Festa txiki bat izango da. Lan berriak “Hau komeria!” izena izango du. “SoOofing”-ekin alderatuta, desberdina izango da.

L.I. Herrian sortu diren zurrumurrei erantzunez, antzerkian segituko dugu. Otsailaren 20an dena argituko da. Sorpresak egongo dira, jendea dotore jantzita etor dadila.

Areto Futbol Txapelketako lehen partidak, asteburu honetan

Usurbilgo Gazte Ekimenak areto futbol txapelketa antolatu du. Otsaila hasierara arte zabaldu zuten tartean, guztira hamahiru taldek eman zuten izena. Zozketa bidez, hamahiru taldeok seiko eta zazpiko talde banatan bereizi dira. Elkarren arteko txapelketa asteburu honetan hasiko da.

Ostiral iluntzeko 21:00-21:30 ingururik aurrera jokatuko dira lehen neurketak frontoian, gainerakoak larunbat goizeko hamaiketarik aurrera, leku berean.

Txapelketa apirilaren 24ra arte luzatuko da. Aste Santuan izan ezik, ostiral eta larunbatero beraz, areto futbol txapelketako neurketak pilota-lekuan.



APIRILA BITARTE, ASTEBURURO JOKATUKO DIRA KANPORAKETA PARTIDAK.

Brontzezko bi domina Usurbilgo judo taldearentzat

Judo taldeak brontzezko bi domina eskuratu zituen kadeteen mailako Villa de Madrid txapelketan. 63 kiloz azpiko mailan, Ane Cazorla hirugarren izan zen; postu berean sailkatu zen Beñat Aburuza, 81 kiloz azpiko mailan. Domina jaso ez arren, Jon Etxabek ere lan ederra osatu zuen.

Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa

Mus zaleek hitzordua dute larunbat honetan, otsailak 20, Ardi Beltz garagardotegian. Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa saioa jokatuko da 16:00etik aurrera. Sari potoloak banatuko dira lehen lau bikoteren artean; txapeldunek Saizarrera joateko txartela irabaziko dute, bigarren sailkatuek marisko saskia, hirugarren sailkatutakoek otordubat Ardi Beltzen eta laugarren sailkatzen direnek Arrospidenekoen kaxa bat perretxiku irabaziko dute. Txapelketan parte hartzeko 20 euro ordaindu behar dituzte bikote bakoitzak.

Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa saioak jokatzeko ari dira hil honetan zehar. Final nagusia Seguran ospatuko da, martxoaren 20an. Final nagusiko garaileek, txapela, lau lagunentzat astebeteko bidaia nazioartera eta 3.000 euroko saria irabaziko dute.

Usurbil
gure etxea. gure herria. gure planeta.

KONTZERTUA

19 OSTIRALA, 23:30ean
Askatasuna plazan:

DESEGIN
ODOLAREN MINTZOA
DESPERVICIO

Sarrera + CD: 2 €
Gauean zehar zozketak: CD, karnixetak...

EKITALDI NAGUSIA

21 IGANDEA,
Frontoian eta Dema plazan:

4 gune ezberdinetan banatuta:
10:30: Mural pintaketa.
11:00: Haurren txokoa (marrazketa eta jokoak).
11:30: Porrotzekin ateak ireki eta itxi.
12:00: Abestiaren aurkezpena, bertsolariak, taloak...
13:00: Ekitaldi Nagusia.

Guneak girotzeko trikitalariak, alboka, Kantu taldea...



ATEZ ATE DUDIPE! BILGUNEA


www.dudipe.info

Inauteri festa, hotzaren aurkako botika onena

Zirkoak bizitu zituen Kaxkoko kaleak otsailaren 13an ospatu zen Inauteri festan. Bizitu eta berotu, hotz galanta egin baitzuen, nahiz lagun koadrilentzat eguraldia festarako oztipoa ez izan. Iluntzean jendetsua izan zen, Ordiziako Burrunbazale txarangaren eskutik ospatu zen kalejira. Kaxko inguruak zeharkatu zituen, taberna paretan geldialdiak eginez. Haiekin batera, pailazoak, zirko animalia desberdinak edota animalia hezleak dantzan. Zumarte musika eskolako ikasleak partaide dituen ZuMartxan txarangaren kalejirak girotu zuen eguerdi parte, hauek ere noski, mozorrotuta. Bazkalaurretik hasitako inauteri festa eta parrandarako gogo gaueko ordu txikiak arte ez zen agortu. Inauterietako argazkiak, noaua.com web gunean ikusgai daude.



OSO MOZORRO ORIGINALAK IKUS AHAL IZAN ZIREN PASA DEN LARUNBATEKO INAUTERI FESTAN. JAI-GIROA ORDU TXIKIAK ARTE LUZATU ZEN.



Ugurbil

gure etxea. gure herria. gure planeta.



AGATE REKONDO

"Hondakinak guk sortzen ditugunez, gure ahalegina izan behar du horien kutsadura ebitatzea."



IMANOL AGIRRETXE

"Lurrak ematen diguna, berriro lurrari itzultzea ederra delako."



IÑAKI AÑORGA

"Nire kirol jardunean amasten dudan aire sanoa kutsatu ez dadin."



IRENE GARTZIA

"Naturari eragin diogun zauria sendatzea guri dagokigu, berarekin zorretan baikalde oraindik."



ISIDORO BERROZO

"Egiten erraza, eta oso garbia delako."



JOXEMARI IZETA

"Etorkizunean elkartuko gaituen erroka, ekologia delako."



MIEL ARRASTOA

"Gure gaztaroan bezala, hondakinak berrerabiltzeko aukera ematen duelako."



MIKEL ARRIAGA

"Gaika ahalik eta gehien biltzeko aukera onena delako."



MILA ARROSPIDE

"Hondakina baliagarri bihurtzeko era da."



PAKO ALKORTA

"Osasungarriagoa delako, eta oso garbia."



PATXI PAGOLA

"Horrela bakarrik bereizten ditu hondakinak gaika jende guzti-guztiak."



MARIAJE IMAZ

"Denon artean sortutako hondakinak denon artean birziklatzearen eta kudeatzearen alde nagoelako, ni atez ateko bilketaren alde!"



ATEZ ATEZ DUDIPE! BILGUNEA

www.dudipe.info



1. Errauste-plantaren proposamenari aurre eginez, atez ateko bilketa sistema ezarri da herrian. Azken urte honetan, hiri hondakinen tratamenduak Usurbilen izan duen bilakaera egokia iruditu zaizu?
2. Herri eragileek eta Udalak adostutako herri kontsulta izango da. Kontsulta-eskaera egin zenetik hona, herri galdeketak jarraitu duen prozedura egokia iruditu zaizu?
3. Kontsultan, hiru bilketa sistema posibleren artean aukeratzeko eskatzen da. Zein da zure taldeak bozkatuko duen aukera? Arrazoitu aukera hori.

5 edukiontzien aldeko Herri Plataforma

“Birziklatu 5 edukiontziekin, atez atekoaren beharrik gabe”

1. Atez atekoa hiri hondakinak biltzeko modu bat izan da, eta ez hondakinen biltzetaren ondorengo tratamendu modu bat. Guretzat diferentzia argia da, ze gure jarrera beti eta bakarrik Usurbilgo hondakinen biltzetan oinarritu da, eta ez tratamenduan.

Atez atekoa inposatutako sistema izan da, tentsio soziala eragin duena, ekonomikoki jasanezina, ez da sistema garbi bat izan, ezta higienikoa ezta estetikoa ere, eta aurreko urtean biltzetako hondakin guztien %35 gutxitzea suposatu du, hilero “desagertu” diren 80 tona hondakinen parekoa.

2. Herri kontsulta gure plataformak bakarrik bultzatu zuen. Bildutako sinadurei esker gobernu taldea behartuta ikusi zen kontsulta egin egingo zela adieraztera. Geroztik, alkateak asmatu egin zuen kontsentsu bidez egin nahi zuela, bizilagun batzuk gonbidatuz “ingurugiro gaiekin kezkatuta dauden kide” izateagatik. Denak ezker abertzalearen ingurukoak. Kontsentsua soilik euren artean egon da.

Gure plataforma soilik bi bileretara izan da gonbidatua. Lehenean, galde-raren inguruko gaiaren inguruan, ez ginen joan guretzat –bilera aurretik hala esan genuen idatziz- baleko galdera bakarra “ATEZ ATEKOA BAI

ala EZ” zelako. Uste genuen galdera jada erabakita zegoela, gero ikusi den moduan, erantzun hirukoitza onartzearekin batera, guk sekula onartu ez duguna. Bigarren bilerara joan ginen, prozeduraren ingurukoa, laguntzeko asmoz. Hartziko gonbidatu gisa tratatuak izan ginen, jada erabakita zegoen prozedura entzuteko. Plataformatik hurbildu ginen 10 pertsona baino gehiago mespretxatuak eta gutxietsiak izan ginen alkatearen aldetik.

Gure partehartzea beti argia eta garbia izan da, kontsultari buruzko idatzi asko udaletxean aurkeztuz, zeinak ez diren kontuan izan gobernu taldearen aldetik, are gehiago, ez dituzte erantzun ere egin.

3. Gu bost edukiontzien bilketa sistemaren alde gaude, era horretan gaitzako bilketa maila berdinetara iritsiko gara edo atez atekoa baino bilketa handiagoa egingo dugu, hondakin dena Usurbilen geratuko delako.

5 edukiontzien sistemak legedia errespetatzen du, frakzio denen birziklatzea posible egiten duelako eta konpostajea ahalbidetzen duelako. Sistema boluntarioa da, libreki parte hartzen da eta inposizio gabe. Sistema eroso da, askatasun gehiago ematen duelako, ordutegi eta egutegi gabe, edukiontziak edozein egunetan era-

biltzeko aukera eskainiz, eta edozein ordutan. Sistema garbia, higienikoa eta estetikoa da. Zakarraren presentzia eta usain txarrak kalean zein etxebizitzan ondoan ekiditen delako.

Atez ateko sistema baino sistema ekonomikoagoa, bideragarriagoa eta iraunkorragoa da. Azkenik, 5 edukiontzien sistema gure osasunaren eta etorkizuneko usurbildarren aldeko apustua da; ingurugiroaren aldeko errespetuaren aldeko apustua da, 5 edukiontziekin birziklatze tasa “erreal” handiak lor ditzakegula uste dugu.

Gure lema kanpainarentzat hau da: “birziklatu 5 edukiontziekin, atez atekoaren beharrik gabe”. Hondakin posible guztien birziklatzearen aldeko apustua zehaztuz.

Gure logotipoa esku ireki bat da, edukiontzi bakoitzaren koloreekin osatua, eta eskuan 5 zenbakia duena. Esku irekiak ahalegina eta lana adierazten du.

Eskuarekin, libreki eta era anonimoan bozkatuko dugu, eskuarekin alto emango dio atez atekoari.

Usurbildarrak jabetzen gara birziklatzearen garrantziaz, eta gure hondakinak birziklatzen jarraituko dugu, 5 edukiontzien bilketa selektiboa eginez, gehiengo sozial isilak bere botoarekin hitz egingo duen itxaropenarekin.

1. Errauste-plantaren proposamenari aurre eginez, atez ateko bilketa sistema ezarri da herrian. Azken urte honetan, hiri hondakinen tratamenduak Usurbilen izan duen bilakaera egokia iruditu zaizu?
2. Herri eragileek eta Udalak adostutako herri kontsulta izango da. Kontsulta-eskaera egin zenetik hona, herri galdeketak jarraitu duen prozedura egokia iruditu zaizu?
3. Kontsultan, hiru bilketa sistema posibleren artean aukeratzeko eskatzen da. Zein da zure taldeak bozkatuko duen aukera? Arrazoitu aukera hori.



Atez atekoaren aldeko eragileen Bilgunea*

“Gure eta ingurumenaren osasunaz ari garenez, dudipe, Atez Ate bozkatu”

1. Jarraipen Batzordea. Antzeko bidea egin duten beste herri eta hirietako datuak baditugu, eta Usurbilgo bilakaera izugarria izan dela esan genezake. Organiko guztia bereiztuta biltzea, hori bera bakarrik, erronka handia da, eta lortu da. Batez ere, horrek eragin du gure herriko hondakinen gaikako bilketan emaitzak iraultzea. Mundu mailan, punta puntakoak dira Usurbilgo emaitzak. Bilketari ekin aurretik egindako lana izan da, emaitza hauen eragile, ahalegin handia egin zen hondakinen arazoa, denon arazoa dela ulertzeko. Zalantzarik gabe, Udalak apustu ausarta egin zuela iruditzen zaigu, eta edukiontzien sistematik Atez Ateko bilketara pasatzeko erabakia hartu izana txalotzen dugu. Usurbildarra ondo jabetu da horretaz, eta arduratsu erantzun du (...).

Ez gara mugatu gure herrian, gure etxetan lanak ondo egitera, inguruan argi berri bat piztu dugu, hondakinen errealtateari aurre egiteko aukera on bat bada-goela erakusten ari gara (...). Erraustegirik gabe irteera badagoela erakusten ari gara usurbildarrak gure praktikaekin, egunez egun.

Usurbil Bizirik. Bai, Usurbilgo bilketa sistema, egokia ez ezik, eredugarria da. Eta usurbildarren erantzunarekin eta gai hau hartzeko izan duten ardurarekin, oso pozik gaude. Txalotzeko modukoa da usurbildar guztien lana, salbuespenak salbuespen. Baina ez gara kateatuko lotsaraz-

teko moduko salbuespenetan, noski, nahiz eta gizarteari kalte handia egitearekin batera, zarata handia ateratzen duten arren.

Guk, Usurbilgo herritarrok, dagokiguna egin dugu (...). Orain administrazio publikoek bestelako neurriak ere hartu beharko dituzte, hondakinak gutxitzeko. Bestalde, atez ateko sistema, beste udalerrietan jartzea ere pentsatzen hasi beharko dute, zaborren arazo larria bideratu nahi badugu.

Zehaztu behar da errauste-planta ez dela “proposamena” izan, negozioa egiteko interesak eta influentziak dituzten erakunde publiko usteldu batzuen inposaketa baizik.

2. Zubieta Lantzen. Herrian dauden eragile interesatuekin batera prestatua izan da, eta alkateak, berez hala ez bada ere, lotesletzat hartu du bere emaitza. Erabat demokratikoa izan da. Gogoratu bestela koordinadorak 35.000 sinadura eraman zituela euskal parlamentura, eta zuzenean zaborretara bota zitzutela.

Jarraipen Batzordea. Irekia eta demokratikoa izan da. Hala nahi izan duen guztiak parte hartu ahal izan du. Zeuden proposamen guztiak mahaian zirela hitz egin zen, guztiz jarrera eraikitzailea eta ez diskriminatzailearekin.

Egiten den galderari erantzuna emateko, dauden aukerak esperimentatzeko aukera eman zaio herritarrari, atez atekoa

ere, lehen edukiontziena bezala, praktikan ezagutu du, eta hori ere ariketa demokratiko eder bat izan da.

Usurbil Bizirik. Prozedura, zuzena izan da. Borondatea izan duen herri eragile guztiak irekita izan dituzte kontsultaren antolaketaren lanak. Baina iruditu zaigu sektore batzuk eztabaida ebitatu nahian ibili direla, hain justu, orain kontsultaren balioa eta gardentasuna zalantzan jartzen dabiltzanak.

3. Jarraipen Batzordea. Atez Atekoa dudipe. Hondakinak gaika biltzea ahalbidetzen duelako. Berrerabili eta birziklatu daitekeena kalitate onekoa delako, Atez Ate bilduta. Errefusa gehien murrizten duen metodoa delako, eta, birziklagarriak ez diren hondakinak identifikatzea errazten duelako. Noizbait heldu beharko baitzaie material hauei ere, bestela zertan ari gara ba?. Berrerabilgarri edo birziklagarri ez diren materialak produzitzearen gainean, noizbait legeak arautzen hasi beharra baitago (...).

Beraz, gure eta ingurumenaren osasunaz ari garenez, dudipe, Atez Ate bozkatu.

Zubieta Lantzen. Guk, argi eta garbi, Atez ate.

Usurbil Bizirik. Gure aukera ATEZ ATEkoa da, dudipe.

* Alkartasuna kooperatiba, Zubieta Lantzen, Usurbil Bizirik, Atez Ateko Jarraipen Batzordea, Erraustetaren Aurkako Mugimendua.



Tapa eta aurkibidea K

prest

350-391

Agur esan diogu 2009 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2009ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar duta bazkideek eta bazkide ez direnek.

FRANTSES HIZKUNTZA klaseak Usurbilen!!!

- **Oinarrizko maila**
(Urtebete edo 2 urteko ezagutza dutenentzat).
Astelehen eta asteazkenetan
Parroki Egoitzan 20:00tan hasita.
Zertxobait jakin, ahaztu eta berreskuratzeko gogoz bazaude, hauxe da zure aukera.
- **0 maila** (batere ez dakitenentzat).
Astearte eta ostegunetan 19:00tatik 21:00tara
Kontseju Txikin.

Frantzia hortxe bertan dago. Hitz egitea ahalbidetuko dizun oinarrizko maila lortu nahi baduzu, garaiz zaude!

Informazio gehiagorako: 943 37 10 57

Alkateak errauste egitasmoa

6 urtez atzeratzea eskatu dio Aldundiari

Bien bitartean, atez atekoa Gipuzkoa osora zabaltzea eskatu du

Sei urteko moratoria eskatzen dio Usurbilgo Udaleko alkateak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta denbora tarte horretan, atez ateko bilketa sistema herrialde osora zabaltzea. Otsailaren 11n udalbatza aretoan eskaini zuen prentsaurrekoan adierazi zuenez gainera, Ahaldun Nagusiarekin bildu edota usurbildarren lekukotza Batzar Nagusietara heltzea nahi du Xabier Mikel Errekondok. Datorren herri galdeketari begira, bozkatzera deitu zituen herritarrak.

Errausteko egitasmoa sei urtez atzeratzea eskatu zuen Udaleko alkate Xabier Mikel Errekondok otsailaren 11n udalbatza aretoan eskaini zuen prentsaurrekoan. Mezua Gipuzkoako Foru Aldundiari helarazi zion, usurbildarrak burutzen ari diren lana aintzakotzat hartzea eskatzearekin batera.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“Makinak ez, inguru honetako benetako puntako teknologia herritarrak dira”

Gogorarazi zuenez, errauste proiektuarekin 400 milioi euro edo pezetatan, 67.000 milioi pezeta xahutzeko asmoa dago. Onartezina, alkatearen aburuz, “beste irtenbiderik dagoenean. Herritarren osasunaren eta ingurumenaren kaltetan inbertitzen delako”. Ildo

horretatik, aipatu beste alternatiba den atez ateko bilketarekin emaitza azkarrak eta arrakastatsuak lortzen direla defendatu zuen.

Gai honen inguruan, aurrera begirako Udalak dituen asmoak ere zeintzuk izango diren iragarri zuen alkateak. Batetik, prentsaurrekoan bertan aurreratu zuenez, proposamena herritarrei aurkeztea eta eragile sozialei proposamenarekin bat egin dezatela eskatzea. Usurbildarren lekukotza Gipuzkoako Batzar Nagusietara eramatea eta Ahaldun Nagusi Markel Olanorekin biltzeko asmoa ere agertu zuen.

Azkenik, hilabeteotan Udala burutzen ari den lanari jarraiki, Gipuzkoako udal desberdinei atez ateko bilketa ezagutzeko aukera ematen segitzea nahi du Errekondok.

Usurbildar eta gipuzkoarren benetako baloreak

Hondakinen kudeaketari dagokionean, herritarren parte hartzea maila gorenera eramanean dutela adierazi zuen Errekondok. Usurbildarrak goraiatu zituen prentsaurrekoan. “Heziketa zibikoa tonaka dago hemen”, adierazi zuen alkateak. Makinak ez, inguru honetako benetako puntako teknologia herritarrak direla gaineratu zuen. Eta euren baloreak; elkartasuna, auzolana eta heziketa direla. Balore hauek atez ateko bilketarekin bat egiten dute, alkatearen esanetan.

Errekondok gogoan izan zituen bestalde, atez ateko bilketa martxan jartzeko prozesua hasia duten Gipuzkoako beste



UROLA KOSTAKO UDAL ORDEZKARIAK, USURBILGO ATEZ ATEKOA EZAGUTZEN.

bi udalerririk ere. “Besarkada eta animuak hernaniar eta oiartzuarrei”, adierazi zuen. Baita atzetik bide bera jorra dezaketen udalerriei ere, alkatearen hitzetan, “atez atekoa Gipuzkoako udalerriguztietara zabal daiteke eta”.

Herritarrei mezua

Otsailaren 27 eta 28an burutuko den herri galdeketaren haritik, herritarrak kontsultan bozkatzera deitu zituen alkateak: “Usurbildar zurea da erabakia. Gure etxea, herria eta planeta gure eskutetan dago eta zaindu behar ditugu”. Alkate gisa ez, pertsonalki bere bozka zein izango den argitu zuen; atez ateko bilketaren aldekoa.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ **943 69 68 52 · 620 800 186**

Herri galdeketa, tramitazio prozesu luze baten emaitza

Urtarrila amaierako osoko ohiko bilkuran herri galdeketa lotutako prozedura onartu zuen udalbatzak. Gaiak jorratu duen bidea ordea luzea izan da, urtebete inguruko tramitazio prozesua. Otsailaren 27 eta 28an burutu eta herritarrei hitza emango dien galdeketa izango du amaiera.

Urtebeteko bidea osatu du herri galdeketa tramitazioak. Pausoka, herri galdeketa egiteko konpromisoa, edukia, baimena, prozedura edota galdeketa egunetan erabiliko diren agiri ofizialak onartu dira. Prozesu horretan, herri eragile talde batek parte hartu du, galdera erantzunak prestatzen. Udalak eta udal ordezkariak, besteak beste, unean uneko erabakiak aurkeztu, eztabaidatu, bozkatu eta gehiengoz onartu dituzte. Eta bide horretan, tramitazio lanetaz arduratu da baita, besteak beste, udal idazkarietza ere.

NAGORE SARASOLA, IDAZKARIA

“Herri kontsulta egiterakoan, berme guztiak jasotzen saiatu gara”

Aurrekaririk ez duen herri galdeketa izango dela iragartzen du Nagore Sarasola udal idazkariak. “Egin dira herri galdeketa beste udalerrietan, baina kasu guztietan, ez dute jarraitu gure prozedura”, gogorarazten du. Edo bestela, gaineratzen duenez, herri galdeketa deitzailea Udala ez, herri eragilearen bat izan da. Usurbilen bada iragane-ko erreferentziarik; Urbil merkatalgunearen inguruan burututako galdeketa, baina Sarasolak adierazi bezala, orduan ere, “ez zen jarraitu oraingo prozedura”.

Urtarrila amaierako osoko ohiko bilkuran udalbatzak herri galdeketa inguruko prozedura onartu zuen gehiengo osoz. “Berme guztiak jasotzen saiatu gara”, adierazi du udal idazkariak.



HAUTESKUNDE LEGEAN OINARRITU DUTE HERRI KONTSULTA MARTXAN JARTZEKO PROZEDURA.

Hutsuneak betetzen

Udalarentzat iazko otsailean hasitako prozesuaren giltzarrietako bat galdeketa prozedura prestatzea izan da. Hauteskunde legean oinarritu behar izan du soilik. Gainerakoan, udal idazkariaren esanetan, “toki araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/85 legean, artikuluko soil bat dugu”.

Euskarria, hauteskunde legea

Artikulu horren arabera, galdeketa Udalaren eskumeneko gai bat izan behar du, Ogasunari eragiten ez dion gai bat. Gehiengo osoz onartu behar da galdera bera eta bestalde, herri intereseko gai bat izan eta Estatuko gobernuaren baimena behar duela ere zehazten du. Besterik ez. Sarasolak aipatzen duenez, “bada erreferendumak arautzen dituen estatu mailako legea, baina herri-kontsultetarako ez da aplikagarria”. Bestalde, EAE-n ez dago herri kontsultak arautzen dituen legerik. Beraz, araudi zehatzik ez dagoenez, prozedura osoa ia hutsetik sortu du Udalak, aipatu bezala euskarri gisa hauteskunde legea hartuta.

Galdeketa espainiar estatuko gobernuak baimendu behar zuen. Ekaina

amaieran, udalbatzak herri galdeketa-
ren edukia onartu ostean, jarri zen
Udala Madrilerara begira.

Beharrezko dokumentazioa prestatu eta Lurralde Politikako Ministeriora bidali zuten. Espainiako Ministro Kontseiluak urriaren 30ean erabakia onartu eta egun berean, hedabideek horren berri eman arren, jakinarazpen ofiziala Udalak hilabete beranduago jaso zuen.

Egunotan gutun bana jaso dute herritarrek

Herri galdeketa astebete eskas geratzen diren honetan, jakinarazpenen garai heldu da. Egunotan herritarrek gutun bana jaso dute, nork bere datuekin, zer mahaian bozkatzea egokituko zaien jakiteko. Okerrik bada zuzentzeko, alegatzeko aukera izango da.

Bestalde, alde zuzenetik mahaian egoteko izena eman eta bertan egotea egokitu zaien boluntarioei jakinarazpena helduko zaie. Nahikoak ez badira, udalbatzak burututako zozketan mahaian egotea egokitu zaien 18-65 urte arteko herritarrei ere jakinarazpena egunotan ailegatu zaie.

“Batera eta bestera deituta, laguntza gehiago espero duzu”

Otsailaren 27 eta 28ko herri kontsultaren tramitazioak, zeharka, gabezia handi bat utzi du agerian. Baimena jaso zuen Usurbilgo Udalak Madrildik, baina ez kontsulta bera bideratzeko prozeduraren nondik norakoa. Hilabete hauetan Nagore Sarasola udal idazkaria aholku eske ibili da han eta hemen.

Madritetik bueltan, baimena baino ez zuen jaso Udalak, bete beharreko beste baldintzarik ez. “Baimena da soilik eman zigutena. Aurrera begira zein prozedura jarraitu behar zen ez zuen ezer finkatzen”, adierazi du udal idazkariak. Telefono dei ugari egin zituzten arren, erantzunik ez. “Batera eta bestera deituta, laguntza gehiago espero duzu. Egia esan, udalei laguntza eta aholkua emateko daude erakunde horiek. Halere, legerik ez dugunez, euren jarrera ere ulergarria da”, adierazi du udal idazkariak.

GABEZIEI AURRE EGINEZ

“Usurbilgo Udalak berak finkatu behar izan du prozedura administratiboa”

Elkarlanerako erakunderik ez izateak, herri galdeketa burutzeko udal baliabideetara mugatzea suposatu izan du. Erakunde desberdinetako ordezkariekin harremanetan jarri ostean, Udala ondorio garbi batera ailegatu zen. “Udalak berak finkatu behar zuela prozedura administratibo bat”, adierazi du Sarasolak.



NAGORE SARASOLA
UDAL IDAZKARIAK EMAN DIZKIGU
PROZEDURAREN XEHETASUNAK.

Sei hautestontzi jarriko dira

Udala da gaia kudeatzen ari den erakunde bakarra, eta galdeketa egunean nabaritu da. Hauteskunde egunetako mahai kopurua murriztu du Udalak; bederatzitik seira. Hauteskunde batzordeak ez dira eratuko eta, galdeketa egunetan erabiliko diren agiri ofizial guztiak, udalak prestatu ditu, horiek ohiko hauteskunde egunetan beste erakundeen ardurapeko lanak izaten direnean.

Aurretiazko bozka, otsailaren 18an eta 19an

Otsailaren 27an eta 28an, herri kontsultan bozkatzeko aukerarik ez duenak, horretarako bi aukera izango ditu aste honetan. Aldez aurretik bozkatu ahal izateko, dena den, udaletxeko idazkaritzara jo behar da bi egunotan:

Otsailak 18 osteguna: aurretiazko bozka emateko aukera, udaletxean, idazkaritzan. Orduetgia: 9:00-14:00 / 16:00-20:00.

Otsailak 19 ostirala: aurretiazko bozka emateko aukera, udaletxean, idazkaritzan. Orduetgia: 9:00-14:00.

Ia urtebetez luzatu den herri galdeketa

2009/03/26: Udalbatzak herri galdeketa egiteko konpromisoa hartzen du.

2009/05/26: Herri galdeketa emaitza loteslea izateko konpromisoa hartzen du udalbatzak.

2009/06/30: Galdera finkatzen da. Dokumentazio osoa prestatzean, Madrilera bidaltzen du Udalak.

2009/10/30: Ministro Kontseiluak herri galdeketa egitea baimentzen du.

2009/11/24: Madritetik irteera erregistroa. Udalak astebete beranduago jasotzen du baimenaren jakinarazpena.

2009/12/29: Jakinarazpenaren berri ematen da udalbatzan.

2010/01/26: Herri galdeketa prozedura onartzen du udalbatzak.

2010/01/27: Alkateak herri galdeketa deialdi ofiziala burutzen du dekretuz.

2010/01/29: Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

2010/02/11: Herri galdeketa buruzko kanpainaren hasiera.

Datozen hitzorduak

Otsailak 18 osteguna: aurretiazko bozka emateko aukera, udaletxean, idazkaritzan. Orduetgia: 9:00-14:00 / 16:00-20:00.

Otsailak 19: aurretiazko bozka emateko aukera, udaletxean, idazkaritzan. Orduetgia: 9:00-14:00.

Otsailak 25: Herri galdeketa buruzko kanpainaren amaiera.

Otsailak 27-28: herri galdeketa egunak.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Kaixo, ni Txirritx naiz

Kaixo lagunok!
Ni Txirritx
naiz, lau
urteko umeen laguna.
Hemen ibili gara lan
eta lan ihauterietarako
txapelak eta turutak egiten.
Txapelak ixipuearekin margotu



genituen eta ondoren behatzarekin
elur malutak egin genizkion.
Azkenik, koloretako zintak moztu
eta txapelari jarri genizkion gehia-
go apaintzeko.

Eta turutak berriz, margo bigui-
nekin margotu genituen koloretan.
Beno, hurrengorarte. Aio!



4 URTEKO UMEEK TXAPELAK ETA
TURUTAK EGIN ZITUZTEN INAUTERIETARAKO.

Martxoaren 2tik 7ra, Soinurbil Musika Astea

Martxoaren 2tik 7ra ospatu-
ko da Zumarte Musika
Eskolak eta Udalak anto-
latutako Soinurbil Musika Astearen sei-
garren edizioa. Aurtengo egitarauak ere
osagai anitz dakartza; musika bandaren
kalejira, abesbatzak kantuan, ikasleen
emanaldiak...

Musika, antzerkia, kantua, dantza...
denetarikoz diziplinak nahastuko dira,
martxoko lehen astean ospatuko den
Soinurbil ekimenaren inguruan.
Martxoaren 2tik 7ra egunero, eta
Zumarte Musika Eskolaren ekimenez,
proposamen desberdinez gozatzeko
aukera izango da.

Azkoitiarrekin trukaketa

Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdiaren
saioetako bat Soinurbilen egitarauaren
barruan eskainiko da. Gainerakoan,
aipatzeko moduko bi gonbidatu berezi;
Hondarribiko Hiria musika bandak
egingo duen kalejira eta Zumarte musi-
ka eskolakoek azkoitiarrekin burutuko
duten elkar trukaketa. Oraingoan,
azkoitiarrak datoz Sutegira, dantza talde
eta abesbatzekin. Zumarteko gitarra,
piano eta trikitixa taldeekin batera jar-
dungo dute Sutegiko auditorioan.
2010eko Soinurbil edizioari, mende-
urrena bete berri duen Salvatore Elizako
organoak emango dio amaiera. Juan
Luis Atxegaren eskutik, erakustaldi
pedagogikoa burutuko da.



ANDOAINGO PIANO JAIALDIAN DOMINAK
LORTU ZITUZTEN IKASLE HAUEK. OSO
GUSTORA DAUDE EGINDAKO LANAREKIN.

Seigarren edizioak bi talderen eman-
aldiak dakartza. Ainhua Ansa eta Jagoba
Astiasaran bikoteak inprobisazioan
oinarritutako emanaldia eskainiko dute.
Sutegira bertaratutako publikoa izango
da, euskal kantutegiko zer kanta abestu
proposatuko diotenak. Bestalde, jatorri
folk desberdinetako musika instrumen-
talak jorrazten dituen Hariots taldeak
ere kultur etxean kontzertua eskainiko
du. Euskal, irlandar edota argentinarrak
musika tartekatuko da emanaldian
zehar.

Ikuskizunen atala, Soinurbil ekimenari
hasiera eman eta gaztetxoek zuzenduta
egongo den Haur Kabaretak osatuko
du. Musika eta antzerkiaren bidez, bi
neskatilen arteko adiskidetasuna, handi-
tzea eta desberdinak izateko aukerari
buruzko istorioa azalduko dute, Agerre
Teatroa eta "Mi cabeza que habla" kon-
painien eskutik, ordubeteko eman-
aldian. Egitaraua, eta Soinurbil ekimenari
buruzko informazio gehiago, otsailaren
26ko NOAUA!n.

Antzerki ikastaroa

Ikastaroa LH3, LH4 eta LH5
Ikasturteetan dabilzan umeek
zuzenduta dago. Taldeak gehienez 12-
15 ikasle osatuta egongo dira eta
entsegu edo klaseak larunbat goizetan
izango dira.

Izena eman nahi duenak, otsailaren
19an herriko frontoian izango du
aukera, arratsaldeko 17:00etan.

Informazio gehiago: 680 742 504
(Nekane) eta 657 711 335 (Maite).

Elikadurari buruzko mahaingurua ikastolan

Hitz-Aho Udaregi Ikastolako
Guraso Elkarteak antolatu du
mahaingurua: "Elikaduraren garran-
tzia eta elikadura nahasteak".
Otsailaren 25ean 17:00etan
Ikastolako erdi aretoan.

Kultura eta Ongizateko dirulaguntzak eskatzeko epea laster amaituko da

Kultura eta Ongizateko diru-
laguntzak eskatzeko epea
otsailaren 25ean amaituko da.
Honako agiriak eraman behar dira
udalera: eskaera-orria (udal txan
eskura), ekintzei buruzko fitxak,
nortasun agiriaren fotokopia edo
identifikazio fiskalaren kopia eta
Gizarte Segurantzarekiko eta
Ogasuneko betebeharretan egunera
egotearen agiria.

Agenda !

Otsailak 19 ostirala
- Haurrentzako antzerki ikastaroan
izen-ematea, frontoian 17:00etan.

Otsailak 20 larunbata
- "SoOofing" antzezlan, Sutegin.
20:30etik aurrera.

Otsailak 21 larunbata
- Bertso saioa Sutegin, 18:00. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Amets Arzallus, Andoni Egaña. Sarrerak, 8 euro. Aurretik 5 euro, Oiardon eta Txiribogan.

Otsailak 27 larunbata
- Kantu-jira kalez kale, 19:00.
Frontoitik irteera.

Goardiako farmaziak

Otsailak 18, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 19, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 20, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 21, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 22, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 23, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 24, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 25, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 26, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 27, larunbata
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 28, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Chucla farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)
*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Datorren astean, kantu-jira

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak hitzordu berria du, kalean kantuan aritzeko. Euskal abestien kantu-jira berria, otsailaren 27rako antolatu dute. Iluntzeko 19:00etan frontoitik abiatuko da partaide taldea.

Hilabeteko azken larunbatean tradizioan bihurtzen ari da, Kaxkoan herritar talde bat kantuan ari dela entzutea. Otsailan ere ez diote hileroko hitzorduari huts egingo. Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak kantu-jira saio berria antolatu du, otsailaren 27rako.

19:00etan frontoitik

Kalez kale, tabernaz taberna, errepaso ederra emango diote beste behin, euskal kantutegiari. Herritar



FRONTOITIK ABIATUKO DA
KANTU TALDEA.

orok parte har dezake, irekia izango den kalejira. Ohi bezala, pilotalekuek irtingo da taldea, iluntzeko 19:00etan.

Bitartean, gogoan izan, Kantu Taldekoek asteroko hitzorduari eusten diote, entsegu saioetarako biltzen baitira Udarregi ikastolan.

Sari banaketa Gure Pakean

Puntuan, musean, tutean... Azken aste hauetan Gure Pakea elkarteko bazkideek txapelketa ezberdinetan parte hartzeko aukera izan dute. Sari banaketa, ordea, datorren astean egingo da: otsailaren 23an asteartea, 16:00etatik aurrera Artzabalén.

1956ko kinto afaria

Antzetan egingo da afaria otsailaren 27an larunbata. Izena aldeztu aurretik eman behar da. Honako telefono hauetara deituz:

639 510 749 (Mikeli)

695 780 696 (Blanca)

Urdairan birentzat afaria

Eskubaloi taldekoen erifa zozketan, bi lagunentzat afaria egokitu zaio Urdaira sagardotegian Manuel Monroy Castelari. Zozketan saritutako zenbakia, 7.299 izan da. Eskubaloi elkartetik ohi denez, zozketan parte hartzen duten herritar eta jatetxeak eskertu nahi dituzte.



ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 - 943 370 344

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K/ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
Igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

ETXEBIZITZA

- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenen 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiho nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.

- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Esperientziadun emakumea behar da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Hiru orduz: goizeko zazpietatik hamarretara. 687 055 166.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Urte asko herrian daramatzen emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak edota haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. 687 348 223 edo 943 364 310.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntza lanak, garbiketak eta baserri lanetan aritzeko. 677593772
- Jardineritza lanak eginen ditut, txakun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendingo edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da.

620185927.

- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Otsailaren 3an belarrirako bat galdu dut Usurbilen. Perla txuri bat dauka. Eskertuko dugu. 943365958
- Bi zilarrezko eraztun galdu ditut. Batek hiru delfin ditu eta besteak bat. Balio sentimental handikoa. 666177913
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Logelako armairu bat daukat salgai. Lau ateko armairua, bi urte ditu eta egoera oso onean dago. Interesatuak deitu 600369013 telefonora.
- Dorleta Kinkildegia traspasatzen da. Interesatuak deitu 609099824 telefonora.
- Urtarrilak 6an harribitxiak zituen urrezko eraztun bat galdu nuen Eliza eta Kaffa kafeteri artean. Norbaitek aurkitu badu eskertu nuke telefono honetara deitzea 943365631.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan. 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinarria, kafetegiko altzariak salgai; aulkia, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea eginen den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberrieekin eta urtebeteko behorra. 626 220925



Zorionak Onintza, iritsi da zure eguna eta jada 8 urte!! Ondo pasa eta ea merienda eder bat prestatzen diguzun aitaxo, amatxo eta Enekorri. Muxu potolo!



Zorionak Garazi, hilaren 17an, 17 urte beteko dituzu, ondo ospatu, eta Tenerifen gure koloreak ondo defenditu.



Zorionak Nahia! Otsailaren 19an gure etxeko poxpolinak 3 urte egingo ditu. Ondo pasa eta muxu handi bat Zuhaitz eta etxeko guztien partez!

HILDAKOAK

Tomas Gilarte Fernandez
Otsailaren 4an hil zen
71 urterekin.



ESAN EZ ERRAUSKETARI!

Inposaketarik ez, eman hitza herriari!

**27an eta 28an,
BOZKATU**
atez atekoa, gure ordua da!

Usurbilgo Ezker Abertzalea



PARTE HARTU HERRI KONTSULTAN

*otsailaren 27 eta 28an
mahiak auzo guztietan
10:00etatik 20:00etara
ez ahaztu zure NAN edo EHNA*



herri kontsulta otsailak 27 eta 28an



Usurbilgo Udala